

IF IT ZIA

Ediarne Bilbao

1144111

Agur Ehun Kilo
musika taideari

BARRREN

en 30
V. urtea - 208. aldia.

E I G O I B A R K O A S T E K A 1 1 I A

UDALETXETIK

"Ahoz aho,
belaunez belaur",
euskara bultzatzeko
kanpaina

GEHIGARRIA

kaie zuloatik
baserrira

BERBETAN


Paco Egea -
Ekonomia Sailburua

KIROLAK

C.D. Elgoibarko
kadeteak eta
2. erregrionaleko
taldea

KURAK

Jose Baienetxea,
Apraiz baserriaren
defentsan



Paco E a Ekonomia Sailburua
"INE uskalduna sortzea
da gu elburua"

111111. 1

"Guztiek dute langabeziaren kontra babestua egoteko eta lana izateko eskubidea"

Giza Eskub.ideen Aldarrikaoen Unibertsala

20.000



OSASUNDEGIA

Urkizu pasealekua,
(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).
linoak: (943) 12 02 00 12 02 04
EIBAR

- 1- Alergologia
- 2- Kardiologia
- 3- Zirurgia
- 4- Dermatologia
- 5- Dietetika eta Nutrizioa
- 6- Foniatria
- 7- Ginekologia
- 8- Laborategia

- 9- Barne medizina
- 10- Ortodontzia
- 11- Otorrinolaringologia
- 12- Pediatria
- 13- Psikiatria
- 14- Radiologia
- 15- Traumatologia
- 16- Urologia

KONPARA EZAZU MATERIALEN KALITATEA

Mendaroko Udalaren
alboko etxeak

Marmolezko
portalak/Gineako
egurrezko enpanelatua
Gineako tarima
Abebay-zko zokaloak
Sukalde, gela eta
egongelan eskaiola
Eskilen eskubandak
Gineako egurrezkoak

I Antena parabolikoa
PVCzko pertsianak

I Iggogailua
Kalefazioa eta ur beroa
txapazko berogailuekin

I Roca etxeko komunak
Isolamendu termikoa

14.000.000 pta.tik aurrera
Etxeak faister eskuratzeko
aukera
(12 bakarrik geratzen dira)



Promotora Inmobiliaria Mendaro

Tel: 75 51 68 (94) 491 23 19





EDURNE BILBAO

Agur Lady Di, kaixo Urdangarin!

Bada hilabete eta piku gertakizun ta- maIgarri hura pasa zela eta orain- dik ere notizia izaten jarraitzen du dama honek. Parisko tunel hartan heriotza aurkitu zuen biharamonean bertan, bazebilen "bolo-bolo" drama hura kalean .

Era guztietako komentarioak piztu zituen. "Zer diozu, baina benetan gertatu da? Seguru astekari baten kontua ez dela?" Eta erantzuna: "Ezetz ba, berria irratia eta tele- bistatik ematen ari dire- la, egia dela". Batzuek harrিতa "ene, bihotzak buelta eman dit, ze pena atzu!" zioten. Beste bat- zuek ostera "eta neri zer axola dit horrenak; zer uste zenuten ba, per- miso berezia zuela in- mortala izateko ala? Be- netan kokoteraino nau- kate" esaten zuten. An- dra batzuek sentimentua benetan beregan- natuta zeukaten eta "agrabiatura" sentitzen ziren: "gaixua, orain bere bizitzan zorion- su zela bere maitea azkenean topatuta... Belarri haundidunak hartu du atsedena, bai, zerri horrek orain libre dauka Camila horrekin nahi duena egiteko". Bapatean denok ezagutzen genuen Diana hurbil-hur- biletik: "hain ona zen, hain polita, hain do- torea, hain sufritua, hain...".

Baina egon lasai, baten penak utzi eta

hemen dator bestearen poza: "Ai ze emo- zioa, gure Iñaki bihar Kristinarekin ez- kondu behar dela, honek nobela arrosa di- rudi, bera hain guapoa, neska ere hain plantaduna", eta askok eta askok, bihar te- lebista aurrean emoziozko negar malkoak botako dituzte; beste asko, ordea, sutan jarriko dira: "hala, orain beste hau jasan behar" eta ondorengo egunetan xehetasun guztien berri emango digute: zer jantzi zera- maten, zer jan zuten, "palmitoa" nork luzitu zuen eta abar eta abar luzea. Zalantzarik ez dut gutxi batzuek "inba- sio" honetatik ihes egin- go dutela eta indiferen- tzia osoz entzundako guztiak belarri batetik sartu eta bestetik irteten lagako dituztela. Baina, ba al da ezertxo jakin

"Bapatean denok ezagutzen genuen Diana hurbil-hurbiletik: hain ona zen, hain polita, hain dotorea,..."

gabe geldituko dena?

Nahita edo nahigabe, muinetaraino sartzen digute "famosoen" gora-beherak eta agian gure bizitzaz baino gehiago da- kigu gugandik milaka kilometrotara bizi direnena. Ez al da ba, nahikoa interesga- nia norberari gertatzen zaiona? Honi bu- ruz hitzegin ondoren batek komentatu zi- dan bezala, "telebista muinetaraino zauka- gun sartuta eta zer egingo diagun ba, Coka cola edan eta don't worry, be happy!".

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



LABURPENA: 2000 URTE ETA GERO, JENTILAK LURRAREN AZALERA IRTENCO DIRA KIXMI, EUREN GARTZELARIA, AKABATZEKO AGINDUAREKIN...





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 'zt 74 41 2
Publizitatea:
 It 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra
 LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
 ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
 ERREDAKZIO KONTSEILUA Andres Alberdi,
 Rosa Agirregabina, Mikel Kortabitarte
 KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
 POBLIZITATEA Miren Moreno
 MAKETATZAILEA Mikel Cornejo
 ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
 M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
 KOLABORATZAILEAK Irati Agirreaziatlegi,
 Gemma Agirregomezkorta, Itz'sar Ajuria,
 Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,
 Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito,
 Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,
 Ane Guilk5, Jon Gurrutxaga,
 Antton triondo, KOKOE,
 Imanot Larrañaga, Javi LeOn,
 Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,
 Ongarri Zine Kluba,
 Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe,
 Leire Urkidi, Iban Urizar
 Unai Villena eta Julen Zabaleta
 BANAKETA ARDUFIADUNA Imanol Larrañaga
 INPWMAATEGIA Gertu Koop. E.
 TIRAOA 4.000 ale
 LEGE GORDAILIA SS-1.038/92
 ISSN 1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura*



fundazioa
 * * * * * n̄da i6n

DANOBAT
 MAQUINAS HERRAMIENTA

Eskola-Kirolerako egitarau berria Elgolbarren

Hogei urte beteko dira aurrean Eskola-Jolasak deiturikoak Elgoibarren antolatzen direla. Orduetik hona ezer gutxi edo bat ere ez da aldatu garai batean Gipuzkoako aitzindaria izan zen antolakuntza eredu hura.

Denbora honetan guztian ez dago zalantzarik gizartea asko aldatu dela eta honekin batera Kirol-Hezkuntza Fisikoa. Eskola-Kirola haurren garapen osorako bide bihurtu da multikiroiltasunean oinarrituz eta guztien partehartzeak garrantzia hartuz, eta, alde batera utziz espezializazio goiztiarra.

Diputazioak bere gain hartu du Gipuzkoan egiten diren Eskola-Kirolerako edukia eta egitarauak egin, koordinatu eta kontrolatzeko ardura, eta ikastetxeek aukera dute hautatzeko zein kirol eta jardueratan parte hartu nahi duten, egitarau horiek aurrera eramanez ahal izateko beraien egiturak eginez, Diputazioak ezarritako norabidea eta ereduak jarraituz.

Udal eta Kirol Patronatuei dagokion zeregina egitarau horiek aurrera eramanez ahal daitezkeen ikastetxeei materialak uztea besterik ez da (instalakuntzak, elkarrean inplikazioa lortu laguntzaile gisa eta abar).

Diputazioak orain dela hilabete batzuk Elgoibar eta Mendaroko ikastetxeei Eskola-Kirolerako programa berri batean sartzea proposatu zuten. Programa hori probintziako ia herririk gehienetan ezarri da eta zentro bakoitzean egitura egonkorak ezartzea da helburua, era honetan eskaintza zabalduz, teknikari adituak lortuz eta Eskola-Kirolaren antolakuntzari ikuspegi berri bat emanez Elgoibarren.

Elgoibar eta Mendaroko ikastetxeek datorren urrian programa berri honi hasiera ematea erabaki dute. Aurreapauso garrantzitsu hau eman aurretik zentro bakoitzak jakinaren gainean jarri zituen gurasoak eta beraien iritziaz jaso zituzten. Horrez gain ikerketa bat egin zuten, horien emaitzek, zentro bakoitzak programa horretan parte hartzearen alde agertzeko balio izan zutelarik. Programa hau gainera

Diputazioak, Elgoibarko Kirol Patronatuak, Mendaroko Udalak eta ikastetxeek (izena ematen duten ikasleek kordaindu beharko duten 3.000 pta.ko kuota) lagunduko dute diruz.

Prozesu honetan guztian Elgoibarko Kirol Patronatuak laguntzaile eta aholkulari lana izan du.

Ramon Mujika
Udal Kirol Patronatuko
zuzendaria

Ez etorri, kontatuko dizugu eta

Bada denbora bat Eusko Jaurlaritzatik Euskadi turistikoki eta komertzialki bultzatzeko asmoz "Ven y cuenta lo" kapaina kaleratu zela. Bidean geratu dira Lehendakariak, Kontseilariak eta Aldun Nagusiek atzerrian Euskadiren irudi eta izen ona saltzeko, hala nola turistik, industriak eta inbertsio berriak erakarri nahian egindako esfortzuak.

Munduari herri honen beste errealitatea azaldu nahi zitzaion, Euskaditik kanpora irteten diren berriak biloentziaz eta intolerantziaz kutsatu nahi dituztenen aurrean beste errealitate bat adierazi nahi zen. Emaitzak ikusirik, guztiok pozik egoteko arrazoiak ditugula deritzot, gure nekazal turismo guneen eta gainontzeko hotelen okupazio mailak ikustea besterik ez dago Euskadi kanpotarrentzat erakarria dela ikusteko.

Gaur, Barne Ministeritzak 17 hernaldetara zabaldu duen ETARI buruzko bideoaren bitartez bere kasa Euskal Herriaren beste promozio kanpainari hasi du. Gure herriaren alderdi ezkorrenak adieraztera zuzendu den kanpainari, Euskal Erakundeak egin dituen promozio saiakera guztiak errealitate urrun daudela demostratu nahian. Hori demostratzeko Mayor Oreja jaunak gorputz mutilatu eta odolduen, etxe erreen eta gure herriko bazter txikituen imajinaren oparitutako dizkie.

Promozio kanpainari bikaina, "Ez etorri, kontatuko dizugu eta" lema izan dezakeen kanpainari.

Isaac Loiola Zaba
EAJ-PNVko burukidea

BARRENEK ez du bere gain haritzen 1R1TZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

- Emakume batek Udal Kirol Patronatuari galdera hauek egiteko eskatu digu: **"Udal Kirol Patronatuak plangintza berria martxan jarri du Eskolarteko Kirolean.** Jendea ez dago ados programa berri horrekin. Izan ere, ekainean, sondeo bat egin zen hauren artean programa honi buruz. Sondeoaren erantzunak bidaltzeko eskatu zuten baina askok ez zuten erantzunik bidali eta beste askok ezetza eman zioten proposamen berriari. Nire galderak, beraz, hauek dira:
- **Zein portzentaia izan zen baiezkoa sondeo hartan?**
- **Zenbat haurrek eman dute izena aurten eskolar-**

teko jokoetan? Eta iaz?" Udal Kirol Patronatuko zuzendariarekin jarri gara harremanetan eta hara zer erantzun digun: "Udal Kirol Patronatuak ez dauka inongo plangintzarik martxan ipintzeko kompetentziarik. Ez da hori bere zeregina. Kirol Patronatuak kolaboratzaile papera betetzen du soil-soilik. Eskolarteko Jokoei buruzko plangintza hau Diputazioak diseinatu du eta ikastetxe bakoitzak erabakitzen du martxan jartzea. **Beraz, emakume horrek bere ikastetxera zuzendu behar harko luke galdera horiek erantzun diezazkieten.** Berriaz diot Udalaren papera laguntzaile soilarena dela, ez duela erabaki ahalmenik gai honetan".


KEXAK

- "Ostegunero Merkatu Plazara joaten naizenean ikusten dudana egoera penagarria salatu nahi dut. **Hamaika andrazko eta gizonezko ikusten ditut euren konpretako boltsak eta karroak eskaileretan behera arrastaka bajatu ezinik.** Bat edo bat erosketa eta guzti noiz jausiko beldurrez egoten naiz. **Dagokionari zerbait egin dezala eskatu nahi nioke, eda-detuekiko eta arazoak dituztenekiko errespetuagatik besterik ez bada ere".**

TXALOAK

- **Internauta batek Mugerza Krosekoak txalotu nahi ditu "web" orrian informazio asko datorrelako.** **Kritika bat** ere badauka: "Dena **gaztelaniaz dago;** euskaraz ezertxo ere ez. Ingelesa nagusi den Internet bezalako medio batean, gaztelania edo euskara erabiltzearen arteko proportzioa oso txikia da. Beraz, **euskararen aldeko diskriminazioa egitea eskatuko nizuke".**

ESAN?



0_{0111010¹¹¹¹}

4

Ion Garate
Zazpiki Irratiko kidea

Aste honetako telefono deia **Zazpiki Irratiko kidea den Ion Garateri** luzatu diogu. 1984an sortu zen irratia libre honek 97-98 ikasturteari ekin behar dio. Zein asmo eta helburu dituzten jakin nahi izan dugu.

- **Programazioa prestatzeko egindako lehen deialdira ez omen zen inor azaldu. Bigarrenera bai?**
- Beno, hasteko, ez dakit nondik atera duzuen lehen bilerara ez zela inor azaldu, 10 pertsona egon baikin. Ez dira asko baina kontuan hartu behar da lehen bilera zela. Hala ere, gero eta jende gehiago etortzea espero dugu eta dei egiten diogu elgoibartar orori beren irratsaioa egitera anima daitezten.

Zenbat lagunek lan egin zuten iaz eta zenbat irratsaio egin zenituzten? - 20 edo 25 bat irratsaio. Denboraldi bukaeran piska bat jaitsi zen kopurua. Bileretara agertu zen jendea ere hor zehar ibili zen. Jende gaztea da, ez dago ideologia jakin bat jarraitu beharrik, baina hori bai, Zazpikin beti esaten da joera faxista, hipokrita, matxista eta horrelakoak ez direla onartzen.

Zein dira gaur egun Zazpikin zaudetenon helburuak? - Batetik, jende berria etortzea positiboan litzateke. Horrez gain, ahotsik gabekoen ahotsa izatea ere da gure helburua, hau da, informazio alternatibo ematea. Gaur eguneko komunikabideen "kontrastea" garelara esan daiteke.


- **Irratientzat oso garrantzitsua izaten da entzulegoa. Ba al dakizue zenbat jende entzuten duen Zazpiki? -** Ez dugu inongo medio "teknologikorik" zenbat jende entzuten gaituen jakiteko. Beti da garrantzitsua ahalik eta jende kopuru handienak entzutea eta horretarako ari gara programen kalitatea hobetu nahian, nahiz eta zenbatek entzuten gaituen jakiteko ezer ez eduki. Espero dugu ahalik eta jende kopuru handienak entzutea.



ESKERTZA

1997ko irailaren 28an, 84 urte zituela hil zen

KATALINA IRIONDO SODUPEren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Era berean, **IGANDEAN**, hilak 5, Sallobenteko ermitan, goizeko 10:30etan izango den **MEZARA** joango zaretenoi mila esker alde zurretik.



Agur,

"Ehun Kilo"

1989an sortu zen "Ehun Kilo". Lehenengo kontzertua Oraiko tabernan eman zuten. Orditik hona bi diska kaleratu dituzte, Euskal Herri osoan entzun dira beraien abestiak, makina bat anekdota eta oroitzapen jaso dituzte baina, gauza guztiak bezala, talde honi ere iritsi zaio amaiera. "Ehun Kilo" desagertzera doa. Urriaren 11n Gaztetxean emango dute azken kontzertua. Ondoren, etxeko tokatan edo irrastian entzungo ditugu noizean behin, zuzeneko emanaldietan izaten duten indar berarekin gogoratu.

Camilo Fernandezek (bateria), Jabi Bergarak (Kitarra) eta Jon Zabalak (ahotsa) sortu zuten Ehun Kilo orain dela 8 urte. Handik gutxira Cristian Etxabe (b.ajista) eta Jon Iturrino (kitarra) gehitu ziren eta boskote honek bi diska kaleratu zituen. Azken bi urteetan Txitxes (bajua) eta Gontzal (kitarra) ibili dira Cristian eta Iturrinoren tokia betetzen. Elgoibar, Ermua, Mutriku, Eibar eta Bilbokoak dira partaideak. Denetik piska bat beraz, nahiz eta gutziok "Ehun Kilo" talde elgoibartartzat hartzen dugun.

Napalm-en haritrik

Jon Zabala eta Camilo Fernandez "Napalm" taldeko kideak izan ziren. Taide hau desagertu zenean, Camilo Jabirekin elkartu zen entsaiatzeko eta Joni deitu zioten. Hirukote honek sortu zuen musika talde berria, "Ehun Kilo". Lokala bazuten eta gogoia eta ilusioa ere bai. Ahal zutenean elkartu eta entsaiatzen zuten, musika sortu, abestiak egin eta



bukaeran, azken momentuan askotan, letra josiz. Jon Zabalak esan digunez, "hasieran nik eitzen nitxun letrak baina gero kolaborazio asko euki genduzen: Maite Rementeria, Mikel Oregi eibartarra, Ihigo Iñurrategi bergararra...". Lizentzia osoa ematen zieten nahi zutenari buruz idazteko, "musikiakin ondo bazetorren eta gustatzen bajakun, ondo. Danetik kantau izan dou".

Heavy musika euskaraz

"Ehun Kilo"ren estiloa heavyarekin Iotu daiteke, euskaraz abestutako heavy musika, "ez ginan horren bila jun baina guk garai batian musika tipo hori asko entzuten genduan 'Iron Maiden' eta holakuak eta horrek eragina dauka. Akordatzan naiz zela igual disko osua ipintzen genduan eta abesti horrek ibiltzen ginan entsaiatzen. Guk gure kontura ikasi genuen, ez zakagun musika ikasketarik eta horregatik askotan bestiak eitzen dabanari begiratzen diozu eta azkenian 'biziatt' eitzen zera".

"Euli Artean"

1992ko Durangoko azokan kaleratu zen "Ehun Kilo"ren lehen diska, "Euli artean" izeneko eta Oihuka argitaletxearen eskutik. Jonek oraindik go-



goan dauka nola izan zen kontu guztia, "Ielengo lau talde izan bihar ginan. Gero, lau biharrian bi geratu ginan eta, azkenian, 'Eskixu - "Gor" argitaletxiakin jun zan eta bakarrik grabau genduan diskua oso-osorik". Alde batetik berri ona izan zen baina, - bestetik, "sei abesti bakarrik zaka-gun eta sei hilabetian beste horrenbeste preparatzeko esan ziguten. Sei hilabete horiek 'de traca' izan zian". Diskak salto kualitatiboa suposatu zuen taldearen zat. Izan ere, ordura arte toki askotatik deitzen zieten, "baina normalian

"Lehen diska 1992un uteru zuten, 'Euli artean'. Biijdfferld, duela pare but urte,

gitxi kobrauta, edo ezer kobrau gabe". Diskaren ostean, aldiz, "igual kontzertu kantidadia bajau ein zan zeozer baina gehixo kobratzen genduan".

Jonek esan digunez, "gu batez ere 'Gaztetxietan' ibili izan gera gustura. Nahixo izan dou beti toki txikixetan jotzia. Girua desberdina da, harreman zuzenaua sortzen da jendiakin. Pare bat metrotara ikusten dozu gazte bat zure abestixekin a tope disfrutatzen eta horrek asko betetzen dau". Halere, onartzen dute eskenatoki handi batean eta milaka ikusleren aurrean ere sentsaizo polita izaten dela, " Kilometroak' Elgoibarren izan zanian kontzertua eman gendun eta egixa da indar haundixa ematen dizula hainbeste jenden



aurrian jotziak. Pasada bat da!".

15 urtetik 40ra

"Ehun Kilo"kin adin zuztietako jarraitzaileak ditu, "ni konturatzen naiz asko

daudela gurekin hasi zianak eta ondiok jarraitzen dabenak eta igual 40 urte dake. Gure taldeko batek ere 40tik gora dakaz eta askotan, igual kontzertu batera jun eta gaztetxueri nagusixak general iruditzen jakue. Normala da. Hori bai, gu entzutera juten dana disfrutatzen juten da". Eta taldekideak ere horrela hasi ziren, "azken finian gure nahixa ere ondo pasatzia izan da hasieratik".

Kontzertuen gain-behera

Duela bi urte kaleratu zuen "Ehun Kilo" taldeak bigarren diska, "Esaiek". Halere, aspaldian kontzertuek behera egin dute. "Ez gure kasuan bakarrik, talde askori gauza berdina pasatzen jakue. Gainera, konturatzen bazera, aste-bukaera guztietan toki mordo batian daude kontzertuak eta jendia aukeratu ein bihar izaten dau bat edo beste bat. Danentzat ez dao eta horrek eragina daka". Gainera, "Ehun Kilo" sekula ez da izan modako abesti arrakastatsua ateratzen duten talde horietakoa, "behin edo behin entzun izan dotenian irratixan edo taberna baten gure abesti bat rarua eitzen jata. Batetik ez naolako gehixegi ohixuta eta bestetik, dakatelako sentsaziva kantatzen dauana ez naizela ni iruditzen jatalako".

Abesti batek arrakasta izateko zenbait ezaugarri izan behar ditu, horien

8 urtian Eushal Herrixdrri buelfia diou eta dZhbflidil ddIld bastante monotono eta mekanikua bihurtzen da".

artean promozioa ere badago, "bai argitaletxeek egiten dutena baitxa taldiak berak ematen dion bonbua ere. Guri pasau izan jaku elkarrizketa bat eitzeko deitxu izan digutela nunbaitxera juteko eta perezia jutia eta holakuak. Eta hola zaila da ezagutaraztia".

"Erritmo horretan, hasierako ilusio eta gogak behera erortzen dira eta antzeko zerbait pasau zaio "Ehun Kilo"ri.

"Taldekobatzuek famelixia dake, umiak, lana... Eta poliki-poliki erre eitzen zera. Zortzi urtetan Euskadiri bueltia eman diou eta azkenian bastante mekanikua eta monotonua bihurtzen da dana. Gauza guztiak bezela. Gogua euki bihar da jarraitzeko eta nor beran partetik asko jarri bihar da. Ilusiva amaitzen bada, hobe lagatzia. Eta hori erabaki dou guk".

Jonek beste lagun batzuekin jarraitzen du entsaiatzen, "asmo berdinakin. Poliki, poliki. Egun batian sortzen bada zeozer ondo, eta besteia igual segitxuko dot. Urte asko izan dia ixa egunero musikian gora ete behera eta hori ezin da egun batetik bestera ahaztu".

Fama eta bitxikeriak

Jonek ez du sekula famaren pisurik igarri, "tokau izan jata behin edo behin jendia hurreratzia autografo bat sinatzeko baina oso gitxitan, gainera parre-



guria ematen zian." "Behin, gauza kurioso bat pasau zan. Beste pertsona batek Donostian zauala "Ehun Kilo"ko kantantia zala esan zaban, nere izena suplantau zaban eta han ibili zian danak, "Ehun Kilo"ko ustetako kantantiakin". Jon bera ere ez da sekula mitomanoa izan, "taldiak gustau izan jataz baina hortik autografitan asunto horretara... Ez naiz idoluak eukitzen debent horietakua izan".

Behin beste pertsona batek nere izaberia hartu eta 'Ehun hantantia zala esan zaban'. Jon Zabalal

Agurra Gaztetxean

Azken kontzertua Gernikan egin zuten baina taldearen desagertzeari ukitu berezia eman nahi izan diote, "lelengo kontzertua Elgoibarren izan zanez, azkena ere hemen eitzia pentsatu gendun. Gainera, kontuan eukitxa Gaztetxe berrixa dauala... Danak ados jarri ginan eta urrian I Irako ipini genduan fetxia. Taldian parte hartu izan doun danak egongo gera eta espero dot jende asko etortzia".




Zer eskatuko zenioke Ekonomia SE_Inurl burnirl



PAKO ARRIZABALAGA

68 urte, jubilatua

Euskal Herriko kargua hartu dau eta industrian asuntuan uste det nik lanik haundixena dakala. Bentajak hila eta lanpostua ugaltzeko mdua bilau deixala.



MIGUEL ORDOÑO

70 urte, jubilatua

Bere lanpostua defendatzen jakin dezala gauzak ondo eginez. Euskal Herrian eta, batez ere, Elgoibarren ekonomia bultzatzen ahalegin-tu dadila.



**M. DOLORES
ASTIGARRAGA**

59 urte, etxekoandrea

Batez ere industrian lan egin beharko duela iruditzen zait, enpresa eta sindikatoen artean hitzarmenak bultzatuz eta langabeziaren gaia konpontzen saituz.



JAVIER DOMINGUEZ

63 urte, jubilatua

Gauzak ahalik eta ondoen egin, ekonomia bultzatu eta lanpostuak sor ditzala. Batez ere, euskaldunak eta hemen bizi garen kanpotarrak batzen jakin dezala.



MARTA LOPEZ

28 urte, postaria

25-40 urte bitartekoentzako formazio ikastaroak egon daitezela aukera gchiago izan ditzaten. Ikastaroak doan izatea eta, ahal bada, zerbait ordaintzea.



IDURRE ARAKISTAIN

19 urte, ikaslea

Gaztientzako lanpostuak sortzeko biharra dauanez, batez ere hor lan eixia eskatuko nioke. Eta, baitxa ikastaruak antolatzia ere, gehixo formatzeko.

KENSINGTON

Cambridge

Examinations, certificates & diplomas
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



University of Cambridge
Local Examinations Syndicate
International Examinations

MATRIKULAZIO EPEA:
urriaren letik 9ra

AZTERKETAK ETA DATAK
abenduak 13
F.C.E. (First Certificate English)
abenduak 11
C.A.E. (Cambridge Advanced English)
abenduak 10
C.P.E. (Cambridge Proficiency English)

AZTERKETA LEKUA:
Eibarko Armeria Eskola

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK ONDOKO HELBIDEETAN:

DURANGO: Compubit English Institut. Zumalakarregi, 18 Tel: 94 - 620 20 20

ELGOIBAR: Kensington School of English. Peciro Muguruza, 8 Tel: 74 02 36

Key Aademia de InOs. Bernardo Ezenarro, 5-3 Tel: 74 30 44

BERGARA: Espolon School of English. Ibargarai, 31 Tel: 76 03 53

ONATE: A & M School of English. Lazarraga, 1 Tel: 71 61 37

Cim-Ahlzke. Olakua, 14 Tel: 71 60 00

LEKEITIO: Link Idiomas. Tel: 908 - 57 62 58

EIBAR: Anglo-American. Urki, 17-C Tel: 20 64 57

Interidiomas. Urtzaile, 1 Tel: 12 10 03

1.1kitze. Juan Guisasola, 2 Tel: 70 25 59

Link Idiomas. Juan Guisasola, 5-1 Tel: 20 39 59

ARRASATE: Parlance. Ferrerías, 11 behe Tel: 77 06 83

Cim-Ahizke. Arabako Etorbidea, 4 Tel: 71 20 55

ONDARROA: Howdy **Academy**. Artibai, 18 Tel: 94 - 613 43 26

ELGOIBARKO IZARRA



DA

1997

nrAg > izm

BIENTZAKO OHARRAK:

1. Lanak ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elicartera, Ubitarte 4, bidali behar dira.
2. Kartazalean 'ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK'¹ jartzeaz gain, 'Prosa Lehiaketa' edo 'Etxegiria Bertso-Paper Lehiaketain parte hartzeko den zehaztu beharko da. Hau ezezik, zein mailatan parte hartzen den ere larri beharko da (A,B edo C). Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak bazterivak izango dira automatikoki.
3. Sari banaketa eta irabazleen berri ematea, San Anton iaietan egingo den jaialdi berezi batean izango dira.

XII. PROSA LEHIAKETA

Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork ere parte har dezake.
- 2.- Hiru maila bereiziko dira:
A.- DBHko 1. eta 2. mailak (12-14 urte).
B.- BBBko 1. eta 2. mailak (15-16 urte).
C.- BBko 1. eta 2. mailak (17-18 urte).
- 3.- Idazlanen luzera:
A.- 3-6 orrialde bitartean.
B.- 4-8 orrialde bitartean.
C.- 5-10 orrialde bitartean.
- 4.- Gaia: librea izango da.
- 5.- Idazteknika: prosaz izan beharko da.
- 6.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru kopia, izenburua edo giltz-lema batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lema jarriko dira.
- 7.- Sariak:
A.- 1. Txapela eta 10.000 pta.
2. 5.000 pta.
B.- 1. Txapela eta 20.000 pta.
2. 15.000 pta.
C.- 1. Txapela eta 30.000 pta.
2. 20.000 pta.
- 8.- Lanak entregatzeko epea: abenduak 12.
- 9.- Epaimahaia ELGOIBARKO IZARRAK izendatuko du eta honen erabakia apelaez a izango da.

XVII. 'ETXEGIÑA/ BERTSO.PAPER LEHIAKETA

Oinarriak:

- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork ere parte har dezake.
- 2.- Hiru maila bereiziko dira:
A.- LHko 5. eta 6. mailak (10-11 urte)
B.- DBHko 1. eta 2. mailak (12-14 urte)
C.- Ertainak (14-20 urte)
 - 3.- Bertsoen luzera:
A.- 6 kopla edo 2 bertso.
B.- 8 kopla edo 3 bertso.
C.- 5 bertso.
 - 4.- Gaia:
A eta B mailatan gai librea.
C maila: "ELGOIBARKO GAZTETXEA"
 - 5.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru kopia), izenburu edo giltz-lema batekin eta egilearen inolako ezaugarririk gabe.
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lema jarriko dira.
 - 6.- Sariak:
A.- 1. Txapela eta 8.000 pta.
2. 5.000 pta.
B.- 1. Txapela eta 10.000 pta.
2. 6.000 pta.
C.- 1. Txapela eta 15.000 pta.
2. 12.000 pta.
 - 7.- Lanak entregatzeko epea: abenduak 12.
 - 8.- Epaimahaia ELGOIBARKO IZARRAK izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea

LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



• **Mahai Nazionalaren epaiketaren aurkako ekinnak**

Datorren astelehenean, hilak 6, HBko Mahai Nazionalaren aurka izango den epaiketaren aurrean hainbat ekintza antolatu ditu HBk. Bihar, larunbata, sinadurak bilduko dira eguerdiko 11:30etatik 14:00etara. Egun berean, Donostian manifestazioa egingo da Boulevard-etik hasita. Hilaren 6an gobernu zibilen aurrean kontzentrazioak egingo dira eta gauza bera egingo da hilaren 10ean herri guztietan. Hilaren 10ean baita ere, HBko mahai nazionalaren auziperatzea plazartuko duen udal plenoa egingo da arratsaldeko 6etan. Amaitzeko, hilaren 11n, "Demokrazia Euskal Herriarentzat, askatasuna" Iernapean manifestazioa egingo da herriko kaleetan. Elgoibarko HBk ekintzetan parte hartzerantz animatu nahi ditu abertzale guztiak.

• **Mugerzako kroseto Internet-eko helbidea**

Joan den astean argitaratu genuen Mugerza Kroseto Internet-eko helbidea ez zen guztiz zehatza. Hona hemen zuzenduta: <http://www.softlan.com/krossmuguerza>.

Pedro Muguruzako batzokia itxita 20 urte eta gero

FAJ-PNV alderdiak bi egoitza izan ditu joan den urtarilerara arte. Bat Pedro Muguruza etorbideko 8an eta bestea Foruen plazan. Joan den urtarilean Pedro Muguruzako batzokiko tabemaren ardura zutenek utzi egin zuten eta ordutik itxita dago egoitza hura.

Elgoibarko EAJ-PNVren uri-buru batzan-a sortu zutenetarik batek esan digunez, "1977an hiru elgoibartarrek uri-buru batzarra sortu gendun. Eibarrera juten ginan batzar klandestinoetara eta Andoni Idoiaga etorri zan legalizatzerara". Lehendakari probisional modura Manu Pagola izendatu zuten eta lehen lehendakari ofiziala Jose Mari Oruesagasti izan zen. Behin partidua eratuta, egoitza antolatzeari ekin zioten. Lehendabizi elizako sakristian kokatu zen. Gero, Urban Kondek Arrillaga kalean utzitako sotano batera pasatu ziren. Ondoren behin betiko batzokia sortu zen. 1978ko maiatzaren 7an ireki ziotuen ateak Pedro Muguruzako egoitzak. "Batzokixan sorreran jende askok hartu zaban parte. Lan haundixa ein zan, eta

dirua ere ipini zan, batzuek gehixo eta beste batzuek gitxio. Gauskola han inipini zan euskaria jrakasteko; kozina klasiak ere ematen zian. Oin dala 5 urtera arte eman ditzue euskera klasiak han. Askok penia hartu dou itxi dalako baina lokala ondiok han dao".

Alogera nahiz salmenta

Pedro Muguruzako batzokiko lokala norbaitek alogeran hartzeko moduan dago, lehen zegoen tabernarekin jarraituz edo beste edozein negozio jarritz. PNVko kide den Jose Mari Oruesagastik esan digunez, "alderdiak salmentan ere emango luke lokala norbaitek erosi nahiko balti".



karkizano
San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 74 08 49

EVITA ZENTRO PSIKIMEDIKOA
Gida eta arma baimenezako arzerketak

Larunbatak:
11:00etatik
13:00etara

Goizez: 10:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-17:00
Ostiral arratsaldetan itxita

Arikitxa Zubia. 1. behe (Unzeta ferreteria zena) Tel./Faxa: 20 05 01 **ELBAR**

POL-POL
TABERNA

San Bartolome, 19 - 74 08 74 - ELGOIBAR

ANCHUSTEGUI sa
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Poslakutxa
Tel: 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14. behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

San Migel auzoko jaiak, giro onean

Eguraldia primeran; jai egitaraua apartekoa eta jendearen partehartzea ere handia. Ezin besterik eskatu. Giro ona izan da San Migel auzoko jaietan. Herritar eta kanpotar ugari hurreratu da San Migelera asteburuan zehar ondo pasatzeko asmoz. Zapatu goizean Jose Antonio Arrillaga "Txiki" txakurrarekin artzain lanetan ikusteko aukera izan zen. Sailkapenean "Txiki" izan zen lehena. Bigarren postuan Sallobenteko Jon Osoro geratu zen "Pintxo"rekin eta azkenik, Ramon Larrañaga azkoitiarra sailkatu zen "Riki"rekin. Domeka arratsaldean idi-demak izan ziren. Madarixako Ezkerrak 48 plaza egin zituen, Soartek 43 eta Goriok 31. Astelehenean San Migel eguna ospatu zen eta azken pilota partiduan Loiola anaiek 22 eta 18 irabazi zioten Unai Loiola eta Mugerzari. Iluntzean egin zen txekorraren zozketan 15.197 zenbakia izan zen saritua. 15 eguneko epean ez bada zenbakiaren jabea agertzen etTetserbakoarentzat (14.880) izango da txekorra. Jakin dugunez, aurtengo jaiak antolatzeke 1.600.000 pta. gastatu dituzte jai-batzordekoek.



Gudari Eguna ospatu zuten HBk

Joan den larunbat arratsaldean, irailak 27, Gudari Eguna ospatu zuten HBk. 1975. urteko irailaren 27an Txiki eta Otaegi hil zituzten eta urtero, ezker abertzaleak Gudari Eguna ospatzen du egun horretan. Joan den larunbatean 80 bat lagun elkartu ziren Plaza Handian HBk antolatutako ekitatdiaren bueltan. Lehendabizi, Haritz Dantzari Taldekoek aurrerakua dantzatu zuten. Segidan Ainhua Agirreazaldegi bertsoan aritu zen eta ekitaldia amaitzeko, komunikatu bat irakurri eta manifestazioa egin zen herrian zehar.

Ildgo Garay izan da Haurren Perretxiko Lehiaketako txapelduna

Joan den domeka goizean izan zen Karakate Mikologia Elkarteak antolatutako XXIII. Haurrentzako Perretxiko Lehiaketa. Azken asteotan izan dugun udako eguraldia ez da bat

ere aproposa izan perretxiko mota ezberdinak hazteko eta hori igarri egin zen domekako erakusketan. Antolatzaileek esandakoaren arabera, "perretxiko mota gutxi bazegoen ere,

ondo sailkatuta zeuden eta sorta bereziak iazkoak baino hobeak izan ziren". Urtero bezala, parte hartu zuten talde kopurua oso handia izan zen: 35 taldeeta 108 bat haur guztira



aitor zabala

SAILKAPENA:

- 1- Iñigo Garay
- 2- Ainhua Uribetxeberria
- 3- Aingeru Osoro
- 4- Igor Lasuen
- 5- Josu Aizpurua

SARI BEREZIAK:

Amanita Phalloides
eta **Boletus:**
Ainhua Uribetxeberria
Entoloma Sinuatum:
Josu Aizpurua
Amanita Virosa:
Nerea de La Cruz
eta Ainhua Hidalgo

• HBk ez du Udaleko jardueran parte hartuko

Elgoibarko Herri Batasunak aditzera eman duenez, HBko Mahai Nazionalako kideen aurkako epaiketak irauten duen bitartean, ez du parte hartuko Udaleko pleno, batzorde ez eta bestelakoetan ere, "beharrezkoa ikusten dugun momentu puntualetan izan ezik". Herri Batasunako Mahai Nazionalak ETAK proposaturiko Bake Akordioa jasotzen duen bideoa zabaldu zuen eta bi prentsa ohar kaleratu zituen, "ondorioz, espainiar Gobernuak banda armatuarekin kolaboratzea leporatzen dio". Epaiketa urriaren 6an hasiko da Madrilan.

• Sigma tailerreko lurrei buruzko bilera

Atzo, osteguna, Gillermo Garate alkatea eta Jose Mari Oruesagasti Hirigintza lehendakaria, Jose Miguel Agirre Sprilur-eko zuzendariarekin bildu ziren Sigmako terrenoei buruz hitzegiteko. Gillerrnoren hitzetan, "32.000 metro karratu dituen lur industrial da. Behar bezalako erabilera eta funtzionamendua emateak garrantzi handia izan dezake Deba Beheko etorkizunerako". Bilera horren ondoren beste batzuk egongo dira, "ahalik eta epe laburrenean lur horien etorkizuna desblokeatu nahi baita. Izan ere, bailaran dagoen lur industrial zabaiena da eta industria haundiren bat kokatzeko tokirik aproposena". Sigma enpresa egon zeneko lumen jabeak Fogasa, Inem, Seguritate Soziala eta Eusko Jaurlaritza dira gaur egun.

"Ahoz aho, belaunez belaun" euskara sustatzeko kanpaina prest

Udal Euskara sailak "Ahoz aho, belaunez belaun" izeneko kanpainari ekingo dio urriaren 6an. Helburua bikaitza da: hatetik euskararen transmisioa sustatzea eta, bestetik, egin behar horretan familia inplikatzeko. Datozen egunetan erakusketak, helduentzako ikusentzuteko emandialdiak, dokumentazioa eta bestelako ekintza osagarriak izango dira.

hoz aho, belaunez belaun" kanpainaren helburua guraso eta guraso-gaien artean euskararenganako jarrera aktiboa bultzatzea da. Nolahait esateko, hizkuntzaren aurrean duten erantzukizuna ikusarazi nahi zaie, gizarteak eta eskolak ezezik, eurek ere seme-alaben bizkuntz-hezkuntzan eragina dutela jakinaraziz.

Kanpainaren lau atalak

"Ahoz aho, belaunez belaun" kanpaina lau ataletan banatzen da. Lehenik eta behin, urriaren 6tik 12ra bitartean erakusketa izango da Kultur Etxean. Honako erakusketa kanpainaren oinarria da eta bertan, Ibai eta Itsaso maskotek marrazki bizidunetan euskararen egoera eta transmisioa isladatuko dute. Erakusketan panelak izango dira, irrahak; kioskoetan argitalpen eta prentsa euskalduna ikusi eta irakurri ahal izango da; puzzleak ere egongo dira, joku interaktiboak, ipuinak entzuteko txokoa, baita telebista ere.

Era berean, helduentzako ikusentzuteko muntaia prestatu dute, 8 minutoko iraupena duena.

Dokumentazioaren atalari dagokionean, berriz, propaganda, kartelak, gurasoen artean hanatuko diren hiru kartila informatibo eta irakasleek eskolan erabiltzeko gida didaktiboak izango dira.

Ekintza osagarriak

Euskara sustatzeko kanpainaren barruan beste ekintza osagarri

batzuk ere antolatu ditu Elgoibarko Udalak Deba eta Eibarkoekin batera. Esate baterako, kantutegi bat argitaratu da euskaraz eta euskarari buruzko abestiei buruz. Kantutegia liburuska batean ezezik, kasetean ere editatu da.

Bigarrenik, Deba, Elgoibar eta Eibar-ko Euskara Komiki Lehiaketa antolatu dute. Gaia "Ahozko euskararen erabilera eta belaunaldien arteko harremanak" izango da eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendua dago. Lanak aurkezteko epea urriaren 3 In bukatzen da.

Irakurketa tailerra ere izango dute txikienek. Hiruki taldeak "Selena Mi lena" antzezlan taularatuko du urriaren 10ean 4 eta 13 urte bitarteko ikasleentzat. Hdburua umeen artean irakurzaletasuna bultzatzea da, haurrek ikus dezaten beraiantzako eginiko euskal literatura ere badagoela.

Orain arte esandako guztiaz gain gurasoei zuzenduta urriaren 7an eta 9an hitzaldiak izango dira, bata erderaz eta bestea euskaraz. ANBE elkarteko Xabier Elortza eta Joxean Urdangarin izango dira hizlariak. Eta gurasoentzat baita ere, euskara ikastaroa egingo da Debako Udalaren, AEK eta UdaI Euskaltegien laguntzarekin.

Era berean, euskararen sustapenerako kanpainaren barruan sartzen dira, urtean zehar ikastetxeek euskara bultzatzeko antolatzen dituzten ekintzerarako guntzak.



Gotzon Arrietak, Euskara batzordeko lehendakariak egin zuen aurkezpena.

RAMON LARRANAGA:

"Oin dala 15 urte erositxako txahalan umiekin irabazten ditxut sarixak"

Aldapa baserriak lau buru aurkeztu zituen San Bartolome jaietako Baserritarren Eguneko ganadu lehiaketan, guztiak pirenaika arrazakoak. Ramon Larrafiaga ez zen etxera esku hutsik bueltatu. Izan ere, umerik egin gabeko bigaien atalean lehenengo saria irabazi zuen eta higarren geratu zen beste bi ataletan. Elgeta, Eibar, Tolosa eta beste zenbait herri-tan izaten diren lehiaketetara ere aurkeztu izan da Ramon eta askotan irabazi izan du. Sekreturik? Ramonek berak kontatuko digu.

Gustura Baserritarren Eguneko emaitzarekin, ez?

- Bai, oso gustora. Nik urte asko daruat egun horretako lehiaketan parte hartzen eta lehenao ere irabazi izan dot sarri. Ondo etortzen dia holako premixuak gerora begira ere.

Zein zentzutan?

Guk txahalak saldu eitzen ditxugu eta izena dake-nian askoz hobeto kotizatzen dia. Karrerak irabazten ditxuen deportistei ere askoz kaso gehixo eitzen jakue. Ganauakin gauza her-dina pasatzen da.

— Sariak behiaren kurrikulum-a osatzen dute?

- Beste gauza batzuen artian, bai.

— Zeri begiratzen zaio saria ematerako orduan?

- Gauza asko hartu bihar dia kontuan. Hanken arteko zabalera, atzia laua edo borobila dakan... Konjuntua izaten da begiratzen dana eta horren arabera ematen dia sarixak.

— Zuk erabakitzen al duzu zein behik hartuko duen parte?

- Ez. Lelengo papela aile-gatzen jatxu lehiaketia daua-la esaten eta parte hartzia nahi badozu telefonoz deit-

zen dozu. **Gero, pertsona batzuk basenira juten dia eta ikuiluan dauan ganaua begiratu eta gero, eurak erabakitzen dabe zein huruk hartuko daben parte.** Izan laike euren ustez bat ere ez egotia parte hartzeko kondizivan. Aurten lau aukeratu zitxuen gure baserritxik.

— Eta gero, nolakoa da prestaketa prozesua?

Batez ere Plaza Txikitik Plaza Haundira eitzen dan desfilerako preparau bihar dia ze hainbeste jenden artian urduri ipintzen dia eta sokian lotuta eruatia komeni da. Horregatik, aurretik ohitxu bihar jakue soziakin lotuta ibiltzen.


— Zein da aldapatarren sekretua, Ramon?



- Ez dao sekreturik. Oin dala 15 urte Akey baserrikuei 7 hilabeteko txahala erosi genien, Gorri, ondiok ere gurekin dao. Haren seme-alabak eta seme-alaben seme-alabak dia oingo 20 buruak. Konpra ona ein genduan benetan.



Ramon San Bartolomeetan saritutako bigaiarekin.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA  SF-?
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3. 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83

Sagardoa

Udazkanerekin batera hasten da sagarra jaso eta sagardoa egiteko garaia. Gu Anzuskategi baserrian izan ginen bisitan, sagarra jotzen hasi zirenean hain justu. Sagarra ertz batean zegoen txikitua eta tolarean sartu orduko kolpeak entart eta entan hasi ziren, harik eta sagarra izerditzen hasi eta, poliki-poliki likidoa erortzen hasi zen arte. Hilabete honetan, sagardoa nola egiten den ikasiko dugu lerro hauetan.

Aurten udaberri ona izan dugu eta horregatik uzta hilabete aurreratu da. Sagarra, esate baterako, ohi baino hilabete lehenago heidu da eta dagoeneko hasi dira baserritarrak sagastietako fruitua jasotzen. Hortik aurrera, ilargiari begira hasten dira, ilbehera noiz tokatzen den ikusi eta tolarea prestatzen hasteko. Aspalditik dator ilargiari buruzko sineskeria. Beste gauza askotan bezala, sagardoa egiteko orduan ere eraginik baduela sinesten dute askok eta, bada ez bada, beti ilbeheran egiteko ohitura egon denez, garai berdinarean zain egoten dira oraindik baserritarrak sagardoa egiten hasteko.

Sagar klase desberdinak nahastu

Bizpahiru egun behar dira sagardoa egiteko. Lehenik eta behin sagarra txikitu egin behar da. Lehen eskuz egiten zen dena eta gaur egun, makinaz egiten da. Halere, ba omen dago alderik, "eskuz 10 pusketatan txikitzen zan sagarra eta makiniakin igual 20 pusqueta eitzen dia". Halere, azkar garbitzeko lehengoa hobea zela uste dute batzuek. Amuskategi baserrian esan digutenez, "makiniakin apurtuta jarabia modukua geratzen da, potoluaua, dana aprobetxatzen da eta".

Sagar gazi eta geza nahastea komeni da sagardoak zapore ona izateko. "Geza hutsakin eitzen bada oso motela, gorrixa eta sendua eta gazi hutsakin eitzen bada zuri-zurixa eta oso bizixa urtetzen da. Horregatik, 10 klase badaude hamar klasiak nahastu bihar dia".



Sagarra txikitu ondoren tolarean jotzen da.

Tolarean jo

Behin sagarra txikituta dagoenean tolarean sartu eta sagarra jo-tzen da. Bertan, poliki-poliki, fruitua izerditzen hasten da eta urtzen. Likidoa tolareko zirrikietatik atera eta ubide estuetan zehar jaisten da ontzi batera. Handik barriketara sartzen da. Denbora utzi behar zaio sagardoari barrika barruan, fermentatu eta puntua hartu arte. Gainera, sagardoak zikin guztia bota behar du, "ama deitzen jakona. Aparra eitzen jako eta dana geratzen da goiko partian, handik beherakua da sagardo ona". Barrika zein egurrez egina dagoen ere garrantzitsua da eragina baitu sagardoaren zaporean, "haritza da guretzat onena eta, ahal bada, zenbat eta gehixo erabili barrika berdina hobe. Urte batian edo bitxan sagardua ein be egon eta berriz eit-

xia nahi bada igarri eitzen jako, ze egurra zikau moduan eitzen da".


Alkohol gradua neurtu

Hilabetean, gutxi gora-behera, barrikak geldu utzi behar dira, mugitu gabe. Edateko moduan dagoenean dastatzen hasi eta alkoholean behar duen neurrira iristen denean botiletan sartzen da sagardoa. Gaur egun sagardoa bere puntuan dagoen neurtzeko termometroak daude baina jakin dugunez, garai batean pospoloak erabil tzen ziren horretarako, "barrikako zuluana onduan piztutako pospolua ipintzen da eta emendatzen ez bada, sagardua prest dauan seinalia da. Enboteilatzeke listo".

Bizpahiru eguneko lanak emaitza ona izaten du eta urtean zehar nahi beste sagardo izaten da edateko. Ondo saritutako lana!



Sagardoa barriketan sartu eta hilabeteke epean geldu uztea komeni da..



T bilbide honek 6 km.ko luzera du gutxi gora-behera eta Sagar-Errekatik barrena Azurtzako landa berdeetara hurbiltzeko aukera eskaintzen digu: Topinburu, Galdaramitlo eta Azkonabietako tontorretatik hurbit dago.

Ibilbidea

1 Sorluzeren ipar-mendebaldeko sarrera da abiapuntua. Maltzagako hidegurutzetik joanda, bariantea ezkerrean utzi eta eskuineko bidea hartu behar da hainbat industri pabilioiren ondok pasatuz.

■ **2** Berehala bidegurutze batera iritsiko gara eta ezkerrean hartuz gero, San Migeleko basilizara helduko gara. Bidegurutzea hartu eta eskumara hartu behar da, aintzinako zabortegei haten albotik pasatu eta errepidean gorantz jarraitzeko.

■ **3** Ibilbidearen hasieratik kilometro pasatxo egin eta gero, Ospitxal-Iturri ondok pasatuko gara. Iturria eskuman utzita aurrera jarraitu behar da.

■ **4** Laster, Arregibaso baserriaren daraman pistaren sarreran dagoen iturria ikusiko dugu baina iturria eskumatara utzi eta aurrera segitu behar da.

■ **5** Aurreraxeago, hideguru-

tzetik 500 m.ra, hainbat metroko luzera duen urjauzi zoraganiarekin egingo dugu topo.

■ **6** 400 metro aurrerago, Sagar-Enekako presa handira helduko gara.

• **7** Errepidea jarraituz, kilometro bat gorago bailara zabaldu egiten da, landa artean dagoen Ibarrola baserria eta errota abandonatuaren ondoko iturria aurkituz.

■ **8** Errepidean gora segituz, nekosta eta pagadien artean bailarako zonalde garaira helduko gara. Gero, Bergaretxe baserriaren ondok pasatu eta, berehala, Gure Basoetxe elkarte dagoen bidegurutzerara iritsiko gara.

■ **9** Eskuman Topinburu, Salbador, Llorde eta Irureta aldera abia gaitezke. Errepidean jarraitu eta goraxeago Azurtza baserrira ailegatuko gara. Oso toki polita da eta bertatik Galdaramitoko tontorrera joan daiteke erraz.

■ **10** Azurtza baserritik 500 metrora ikusmira ederreko bidegurutzea dago, eta bertatik Egoarbitza ikusten da. Bidegurutze horretatik hainbat norabide har daitezke: Azkonabietarantz, Karabieta aldera, Elgeta-Eibar etrepidera jaitsi edo Arraoz baserritik zehar Galdaramiñorantz.

Kontuan izatekoak

A. Emeterio eta Zeledonio santuen basiliza San Martzial tontorrean dago, Hernizketa baserriaren ondoan. Jaia irailaren lehen igandean izaten da. Basiliza horretan santu martiriaren erretaula plateresko bat dago.

B. Gune honetan urjauzi ikusgarri bat dago. Toki ezkutuan dago eta ingurua landarez gainezka dago. Errekak ur asko daramanean ibilbidearen txokorik ikusgarriena da.

C. Azurtzako baserria Elgetako izen bereko auzoan dagoen arren, oso gertu ditu Eibar eta Sorluzeko mugak. Santiagori eskaintako basiliza dago.

D. Hainbat aukera eskaintzen dituen bidegurutzea: Azkonabieta, Egoarbitza eta Galdaramilloko tontorrak hurbil daude. Txango hau travesia bihurtuz Elgeta, Bergara edo Eibarrerantz jo dezakezu.

E. Historialariek diotenez, herrialde honetan egindako lehen zezenketa Irure auzoan izan zen 1165. urtean, Nafarroako erregeak lurralde honetara egin zuen bisitaren ondorioz. Bi leinu-etxeek dituzten blasoak gertara horren lekuko dira.

iturria: Deba Deheko gida turistikoa.

Paco Egea elgoibartarra Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lana eta Ekonomia Sailburua izendatu zuten astearte goizean. Duela bi urte eta erdi berarekin hitzegin genuen, garai hartan sailburuorde izateko aukera eskaini ziotelako. Injinerutza tekniko ikasketak ditu baina Euskadiko Kutxan lan egin zuenean ekonomiarekiko "pozoia" sartu zioten. Aurrera begira, ekotzomiarri buruzko gaiak irakurri, sakondu eta garatutako ideiak idatzi eta argitaratu nahi lituzke. Ilusioz hartu du erronka berria eta agintealdia amaitzeko geratzen den urtebetean, gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatuko dela esan digu.

PACO EGEEA

"Gehiago sinesten dut konpromezuan militantzian baino"

— Ekonomiak igotzen jarraitzen al du?

- 1997ko bigarren hiruhiru abetean ekonoina %3,6a igo da Euskadin. Horrek esan nahi du industria topera dabilela lanean eta jendea lasaiago dagoela, kontsumoa igoa egin da; inbertsioa ondo doa... Hala ere, ez da nahikoa lanpostuak sortzeko. Hor dago koska.

— Lan banaketaren aldekoa zara.

- Zalantzarik gabe. Argi dago batzuek lan gehiegi egiten dutela, ordu estra asko sartzen direla... K011t-zientziatu eta tenden-tziak aldatu behar ditugu.

— Zein helburu dituzu epe laburrera?

- Lan mailan garrantzitsuenak, Enplegu eta Prestazio Zerbitzu Euskalduna sortzea, hau da, Euskadik INEM propio eta autono-

moa izatea. Ekonomiari dagokionean, Europarekin daramatzagun negoziaketekin jarraitu eta datozen hiru urteetarako 60.000 milioiko dirulaguntza jasotzea nahi genuke inbertsioak egiteko azpiegituran, formazioan eta teknologian.

—Enpresa mota berri bat sortzeko bidean zaudete.

- Bai, gure asmoa, langileak enpresan inplikazio aktiboagoa izatea litzateke, enpresarekin hitzegin, ideiak proposatu eta abar. Era berean, soldatan eragina izango lukete enpresaren irabaziek. Udaberrirako hitzaldi bat antolatuko dugu gai honi buruz. Hau guztia Demokrazia Industrial a izendatzen da, nolabait.

- Deba Behean turismoa bultzatu nahi da.

- Elgoibarko kasuan, esaterako, nik zerbitzuak indartuko nituzke formazioa-

rekin konbinatuz. Azken urteetan herrian zehar txinarrak ikustea oso garrantzitsua da. Elgoibarrek dominatzen dituen paketeak eskaini eta jendea formatu egin behar du. Bestalde, Ideko, Fatronic eta Teknikerrek hirukote indartsu eta baliotsua osatzen dute eta kontuan izan behar da lehenengo biak Elgoibarren daudela. Izugarritzko potentziala duen sektorea da. Eta, horrekin batera, diseinu industrialia gehiago landuko nuke. —Zergatik onartu zenuen sailburu izateko eskaintza?

Handikeri agatik, erronka bati aurre egiteko gogoia... Eskaintza honi ezetza eman izan hanio erosotasunagatik izango litzateke, Baina, gazte langabetu asko dago eta nire esku dagoen guztia egin nahi dut irtenbidea topatzeko. Konpromezu bat hartu nahi nuen. Gehiago sinesten dut konpromezuan militantzian baino.

—Azken bi urteetan zer ikasi duzu eta zer galdu?

- Eusko Jaurlaritzan ikusi dut jendearen artean gauzak ez direla sekula pertsonalizatzen. Lanari huruz eztabaidatu arren, hurrengo egunean aurrekoan bezain adiskideak izaten jarraitzen du jendeak. Eta hori oso garrantzitsua da. Eta zer galdu dudana? Familiarekin denbora gutxiegi egon naiz. Eta hori falta zait orain ere. Familia da niretzat bizitzaren oinarria.

—Etxean diru kontuak emaztearen esku daude?

- Bai, eta oso lasai bizi naiz. Ez daukat idearik ere gure etxeko ekonomiaren gora-beherez.

EESTEK ESANA

"Gauza asko aipatuko nituzke baina, batez ere, familiari eskaintzen dion arreta"

GLORIA CANALES, emaztea



AZAROAN

•••• JAIOTAKOAK ••••

- Ainhoa Mugerza Ostolaza (Irailak 3)
- Ainhoa Vergara Martin (Irailak 6)
- Ana Garcia Lazkano (Irailak 14)

•••• EZKONTZAK ••••

- Mikel Ugarte Izagirre eta Lorea Rementeria Totorika (Irailak 13)
- Sebastian Lobato AbriI eta Yolanda Arenas Velazquez (Irailak 13)
- Juan Franciseo Santaren Carrasco eta Susana Mancisidor Sololuze (Irailak 13)
- Aser Araujo Iglesias eta Luisa GcSmez Garrido (Irailak 20)

•••• HILDAKOAK e • • • 4.

- Jose Ariznabarreta
76 urte (Irailak 5)
- Narciso Luis Arcarazo Ziaran,
82 urte (Irailak 9)
- Juan Rodriguez Unehalo,
72 urte (Irailak 14)
- Dotningo Hernandez Vidal,
80 urte (Irailak 21)
- Maria Olaizola Oiarzabal,
87 urte (Irailak 23)
- Katalina Iriondo Sodupe,
84 urte (Irailak 28)

**Felix
Ziaran
Lasarte**


(1921-1974)



E

- 1921eko urtarrilaren 28an jaio zen Altzolako Kontzeptzio elizan, 634 errepeidea egiteko bota zutena.
- 7 anai-arreba ziren, bera bosgarrena.
- Altzolako eskola publikoen ostean Don Erasmo Albizurekin ikasi zuen.
- 16 urterekin "Ferrocarriles Vascongados" konpainian sartu zen Elgoibarren ikasle bezala. Hiru urtera faktore postua eskuratu zuen Donostiako Amara geltokian. Denboraldi baten ostean nagusia izan zen Donostia, Elgoibar, Altzola, Usurbil, Durango eta Eibarko geltokietan. Azken honetan 8 urte eman zituen.
- Pakita Mendiola arabarrarekin ezkondu zen eta gaur egun kanpoan bizi den Mari Lourdes alaba izan zuten.
- Denbora hartan pertsona eta merkantzia ugari ibiltzen zen trenean. Jatorra eta atsegina zelako ezagun asko izan zituen Euskal Herri osoan, Altzotan eta Elgoibarren batez ere.
- Anekdotak: C.D. Elgoibarrek Zarautzen antolatu zen Gipuzkoako Kopa irabazi zuten, bere aginduz Altzolako gettokia apaindu egin zuten, Eigoibarko taldeari ongi-etorri emateko. Jendeak etxerakoan "hura bai gauza ederra" komentatzen zuen.
- Kirol gehienak gogoko zituen, futbola eta boxeoa batez ere. C.D. Elgoibar eta Real Sociedad taldeak zituen maite. Boxeoan Paco bueno gustatzen zitzaion. Adiskidetasun handia izan zuen Buenorekin.
- Lerungo zelai zaharrean pozik egoten zen. Oraindik sasoi onean zegoela, Eibarko geltokian nagusia zela hil zen 1974ko apirilaren 14an 53 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXE BERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIET

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Motra) 7908 77 07




Argazki hau Maite Vallejok ekarri digu eta bere esanen arabera, Elgoibarko I. Perretxiko Lehiaketa egin zen eguneko da. 1975eko irailaren 26an egin omen zen lehiaketa Plaza Handian. Erretratuan lehenengo saria irabazi zuten bi gaztetxoak

ageri zaizkigu. Felipe Castrillejo eta Agurtzane Garzia dira argazkikoak. Epaimahaiko Ianetan aritu zirenak honako hauek dira. Ezkerretik eskumara:

Bernabe Mujika (Aranzadikoa), **Ernesto Arrondo** (Aranzadikoa), **Jaime Arrese** (t), **Jesus Mari Garcia**, **Iturriotz** eta **Ramon Ugarte** (Aranzadikoa).

4.000



EKMHOSM
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
- * ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAXA igailanva

425097

4.000

Maria Urizar leापaindegi mistoa

JPt 2D1ONTSUPK, PPSfl ft2P211E!

Errosario 9-lezk.tr 74 44 89 ELGOIBAR

42609V

✂️ ⚙️

FAID11-4 <

Errosario Kaleko jai zoriontsuak igaro! Gora bihotzak!

✂️ deापaindegia
solariuma l. 5

Errosario, 23 behea
Tel: 74 26 92

4.000

4.000


TINDATEGIA rve

Optda
C2220~Lka.

Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91 ELGOIBAR



42609V



DEDUKZIOAREN MAISUA

Igela argitaletxe nafarrak bere Enigma sailean Arthur Conan Doyle idazleak asmatuak Sherlock Holmes detektibearen abenturak aurkezten dizkigu bi liburukitan. Literaturaren historian, beste batzuren artean, detektibe ezagunik bada, horixe Sherlock Holmes dugu, dedukzioaren maisua. Istoria hauetan, ikertzailearen kasuak argitzeko trebetasunaren lekuko gara.

Aipatu bezala, abentura hauek bi liburukitan biltzen dira. Nik biganen liburukia irakurri dut. Bertan sei istorio biltzen dira: "Errubi urdina", "Banda pintoduna", "Injineruaren behatz Iodia", "Aristokrata mutilzaharra", "Beriloen koroa" eta "Copper Beecheseko misterioa", denek ikertzaile paregabea eta haren adiskide banezina, Watson doktorea, protagonista dituztenak.

Liburu hau haur, gazte nahiz helduek une atsegin bat igartzeko proposa da. Izan ere, hauek istorio gustagarriak dira, erraz irakurtzen direnak. Beraz egun hauetan irakurketari heldu nahi diot aukera polita du.

Jon Eugi

Jose Barrenetxea:

"Ahal doten dana eingo dot AprE"/ baserrixa eta errota defenditzeko"

Diputazioak ur depuradora egiteko asmoa dauka Arriaga auzoko Apraiz baserriko lurretan, Jose Barrenetxea Apraiz baserrikoa da, eta berak badauki depuradora bertan eraikitzen badute zer gertatuko den hango ondare historiko eta arkeologikoarekin. "Nere bizimodua kenduko diate. Hala ere, depuradora goiko lurretan eingo balebe, errota eta baserrixa errespetatuta, gaitzerdi. Baina beheko aldi eitzen badabe, akabo baserrixa eta akabo errota".

Pello Arrieta historialari eta arkeologoaren laguntzarekin, Jose Barrenetxeak Apraiz baserriaren inguruan dagoen ondare historikoaren berri eman zigun joan den astelehenean Elgoibarko berriemalerei. Apraizko lurretan etaroko burdinola baten aztarnak daude gaur egun. Burdina tenperatura altuan egostera koan lagatako hondakinen aztarnak, labe baten hormak, ubidearen kokapena, ur depositoaren eta errekan bertan egindako presak horixe adierazten dute.

Pello Arrietak eta Josek berak

uste bezala, garai berdinekoak dira errota eta baserrixa. Azken honek sasoi hartako arku zorrotza dauka etxe atarian eta gezi leihoak eta arku zorrotz baten zatiak ere gordetzen ditu etxearen atzeko aldean. Burdinolarenak izandako egurrezko habeak ditu. Errota duela lau bat urte berri zuten erakunde publikoen laguntzaz. Artirina, duela bost mende bezala egiten ikusteko aukera izan genuen, errota martxan baitago.

Joseren susmoak "txatTak" dira. "Abuztuan lenguetan Diputaziokuak eon zian terrenua ikusten, katak eitzen. Beheko partian bakarrik zulatu zaben lurra, goixan bat ere ez. Nere susmuia da beheko partia interesatzen j akuela, obra gutxio daka eta. Hola izanda, basei Tixa kenduko dabe eta errota beste leku batera eruan, protejiduta

dao eta".

"Depuradorak bisitatzeko ere eon ginan Lekeitzon eta Lasaon. Hego haiziak jotzen dabanian usaindu eitzen dau. Apraiz-eko goi partian usainakin problema gutxio eongo zan tximenea modura eitzen dabalako mendixak. Hala ere, nik ahal dotena eingot errota eta baserrixa defenditzeko eta proiektua ez deitzen ein".

Pello Arrietaren iritziz burdinola zegoen lekuan oso aproposa izango litzaiteke burdinola berri bat eraikitzea. "Hartara, Mirandanolan edo Legazpin dauan moduan burdinola horrek turismoa erakartzeko balio lezake. Gainera, Ekain II turismo proiektuak aurrikusten du gure herrian turismo guneak indartzea turismoa erakartzeko aldera. Horra hor aukera ezin hobia".



Apraizko errota ondare historiko izendatua dago.

||| J) 1 1 speak ellglish.



Lehenago ere hitzegin izan dugu orri hauetan hizkuntzak ikasteari buruz. Gaur egun, ingelesa da beste hizkuntzen artean gailentzen dena. Izan ere, eskoletan gero eta lehenago hasten dira ingelesa irakasten eta edozein lanpostutan atzerriko hizkuntza hori menperatzea asko baloratzen da.

Kontua da eskolako orduz gain gazte asko klase partikularrak hartzera ere joaten dela. **EZ** hori bakarrik, gero eta gehiago hedatzen hasita dago EEBBetara, Irlandara edo Ingalaterrara denboraldi bat pasatzera joateko ohitura. Batzuk eskola pribatuetara joaten dira, beste batzuk, au-pair modura lan egitera eta bada hoteletan logelak garbitzen ibiltzea aukeratzeko dutenak ere. Kontu hau aprobetxatuz asko dira bidaiak eta atzerrian lan egiteko aukerak eskaintzen dituzten agentziak. Aste honetan gai honi buruz zenbait pista ematea bururatu zaigu eta horretarako bi neska hauekin hitzegin dugu. Bata, Judith, lau urtez izan da Ingalaterran, hasieran udalekuan oporrrak pasatzen eta gero toki berean baina lanean. Besteak, Iratxek, urtebete pasa du au-pair lanetan familia batekin.

- Orain dela lau urte joan zinen lehenengo aldiz Ingalaterrara. - Bai. Etxean komentatu zidaten ideia. Nire arna gaztetan bi urtez Ingalaterran izan zen bizitzen eta ez ninduen bidali nahi hemengo jendearekin. Informazioa eskatu genuen eta azkenean udaleku batera joan nintzen. Han, ingelesak eta frantsesak, alernanak eta beste herrialde batzuetakoak bakarrik zeuden. Aukera ona zen ingelesa ikasteko.

Azken bi urteak lanean pasa dituzu.

- Bai. 18 urtetik aurrera begirale modura joan zaitezke **baina nik** oraindik 17 ditudenez, laguntzaile modura joatea eskaini zidaten, Denetik egiten duzu: begiralei lagundu, dendetan gauzak saldu... Tokatzen zaizuna.



Judith Ajubita

- Gogorra izan al da? - Ez da haur modura udalekuetara joatea bezala. Hizkuntza ikasteaz gain beste gauza asko ere ikasten da, lan egitea zer den, gorputza nola nekatzen den.. Eta ardurak hartzen ere ikasten duzu.

Eta juergak? - Bai! Gauero herriko pub-era joaten ginen, noizean behin festak egiten genituen, norbaiten urtebetzea zela...

- Zenbat denbora izan zara? - Aurten sei aste.

Eta zer moduz ingelesarekin? **Oso ondo.** Han derrigorrez hitzegin behar duzu egun osoan zehar ingelesez eta asko ikasten da. Ez hizkuntza bakarrik, baita beste kultura bat, bizitzeko era desberdina... Oso aberasgarria da.

Urtebete osoa Londresen. - Bai. hala da. Zuzendaritzako Idazkari ikasketak amaitu nituenean ingelesa gehiago sakondu nahi nuen eta onena atzerrira joatea zela iruditu zitzaidan. Ikastetxeko zuzendariak Londresen familia bat ezagutzen zuen eta haien etxera joateko aukera eskaini zidaten. Au-pair lanean urtebete pasa dut han.

Eta? - Oso gustura. Hasieran nahiko gogorra egiten da. Alde batetik bakarrik zaude, hizkuntza ere ez duzu oso ongi ulertzen... Baina gero ohitu egiten zrra eta penaz zauten

de bueltatzeko. Negarrez joan nintzen eta negarrez bueltatu.

Zein zen zure lana? - i 1 urteko alaba zuten eta herarekin egon behar nintzen eskolatik kanpo. Ostantzean, etxeko lanak egiten nituen eta astean hiru aldiz eskola batera joaten nintzen ingelesa ikastera. Eskolan egin nituen iagunak.

Merezi izan al du?

Dudarik gabe. Ingelesa ikasteko erarik onena da, bertako familia batekin bizi zarenez ingelesez hitzegin behar duzuhiko. Berriz joan nahi nuke, baina beharbada Irlandara,



Iratxe Osoro

3 ostirala

22:15 ZINEA

"El secreto de los Abbott"

larun ata

10:00 ELGOIBARKO
ESKALADA

TXAPELKETA

Sailkapenerako frogak
Olaizaga Kiroldegian

17:00 ELGOIBARKO
ESKALADA

TXAPELKETA

Finalak
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzaileak: Kirol
Patronatua, Morkaiko
M.E. eta Euskadiko
Federazioa

19:30-22:15 ZINEA

"El secreto de los Abbott"

5 igandea

16:30 ZINEA

"Los turbo Power
Rangers"

19:30-22:15 ZINEA

"El secreto de los Abbott"

astelehena

18:00 ERAKUSKETA

"Ahoz aho, belaunez
belauri", euskararen
transmisioari buruzko
erakusketa
Kultur Etxean
Antolatzailea: Udal
Euskara Zerbitzua
Urriaren 12ra arte

22:15 ZINEA

"El secreto de los Abbott"

7 asteartea

19:30 HITZALDIA

Gaia: "Bi hizkuntza
jakitearen garrantzia"
Hizlariak: Xabier Elorza
eta Josean Urdangarin
Guraso euskaldunei
zuzendua
Kultur Etxean
Antolatzailea: Udal
Euskara Zerbitzua

9 osteguna

19:30 HITZALDIA

Gaia: "Bi hizkuntza
jakitearen garrantzia"
(Gaztelaniaz)
Hizlariak: Xabier Elorza
eta Josean Urdangarin
Guraso erdaldun eta
euskaldunei zuzendua
Kultur Etxean
Antolatzailea: Udal
Euskara Zerbitzua

ostirala

17:30 IRAKURKETA
BULTZATZEKO
HAURRENTZAKO
LEHIAKETA-
EMANALDIA

Izenburua: "Selena
MiIena"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Udal
Euskara Zerbitzua

22:30 ANTZERKIA

Antzezlana: "Barcelona,
Paris, Caracas"
Antzetzaldea: Chico's
Mambo Show

11 NE A



Zuzendaria: Pat O'Connor
Antzezleak: Liv Tyler, Joanna
Going, Jennifer Connelly, Joaquin
Phoenix.

El secreto de los Abbott

1957ko udan Elvis modan zegoeneko garaian kokatzen da istorioa. Hiru ba eder dituen familia da Abbott sendia. Hiruak oso ezberdinak: Alice zintzoa, Eleanor gaiztoa eta Pam, gauzak gehiegi inporta ez zaizkion neska. Parean bi seme dituen andereño bat bizi da. Bi familien artean harreman estua sortuko da baina liskarrak ere izango dira harreman hori dela eta.

ERROSARIO KALEKO JAIK

OSTIRALA, 3

17:30etan Jaien hasiera txupinazoa eta txafliuekin.

18:00etan Buruhandi eta erraldoien kalejira.

21:15etan Afari Herrikoia "Gabi" jatetxean "Duo Plaentxi" eta "Dakintak" alaituta.

LARUNBATA, 4

10:45etan Txafliu jaurtiketa.

11:30etan Plaza Handiko frontoian esku pilota partiduak (euria egingo balu Ikastolako frontoian. Sarrera doan).

17:30etan Txafliu jaurtiketa.

18:00etan Buruhandi eta erraldoien kalejira.

22:30etan Enomerla Gelatxorekin.

IGANDEA, 5

12:15etan Txafliu jaurtiketa.

12:30etan Errosario kaleko hildakoen omenez meza Parrokiako Abesbatzarekin.

17:45etan Txafliu jaurtiketa.

18:00etan Errosario eta "Gutziz Donearen" erakusketa San Bartolome elizan Parroki abesbatzarekin.

18:30etan Haurrentzako merienda herrikoia.

ASTELEHENA, 6

Errosarioko Amaren bezpera

17:30etan Txafliu jaurtiketa.

18:00etan Buruhandi eta erraldoien kalejira.

18:45etan Haurren jolasak.

20:15etan Txafliu jaurtiketa

20:30etan Errosarioko Amabirjinaren oinetan ohiko otoitza eta "Sarbea" herrian hil diren guztien omenez.

ASTEARTEA, 7

Errosarioko Amabirjinaren eguna

17:30etan Txafliu jaurtiketa.

18:00etan Buruhandi eta erraldoien kalejira.

Jarraian, merienda herrikoia haurrentzat.

21:00etan Jaien amaiera txafliu eta traka handiarekin.

• Asteartera arte luzatuko dira Errosario kaleko jaiak

Errosario kaleko jaien batzordeak bost eguneko jai egitaraua antolatu du Errosarioko Amabirjinaren ohorezko ospakizunen barruan. Gaur, hilak 3, hasiko dira jaiak. Eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak Gabi jatetxean egingo den afari herrikoia da. "Plaentxi bikoteak" eta Dakinta txiste kontalariek alaituko dute afalosteko giroa. Larunbatean, hilak 4, goizeko 11:30etan pilota partiduak jokatuko dira Plazan eta gauean Gelatxorekin erromeria izango da, Igandean meza ospatuko da eta errosarioaren erakusketa egingo da parrokiaren, Astelehenean, Amabirjinaren bezpera egunean, ohiko otoitza errezatuko da Errosarioko Amabirjinaren oinetan. Astearterako, azken jai egunerako haurrentzako merienda antolatu dute.



• "Ahoz aho, belaunez helaunn erakusketa

Astelehenean hasita, hilak 6, eta igandera bitartean, hilak 12, Udal Euskara Zerbitzuak antolatutako "Ahoz aho, belaunez helaunn" izenpeko erakusketa izango da Kultur Etxean. Euskararen transmisioari buruzko erakusketa da. Ordutegia: arratsaldeko 6etatik 8ak arte astegunetan; larunbatetan iluntzeko 7etatik 9etara bitartean eta igandean, eguerdiko 12etatik 2ak arte.

• Antzerkia Herriko Antzokian hilaren 10ean

Datorren ostiralean, hilak 10, "Chico's Mambo Show" antzeztaldeak "Barcelona Paris Caracas" antzezlana eskainiko du Herriko Antzokian gaueko 22:30etan. Bi zatitan banatuta dago antzezlana eta ordubeteko iraupena dauka. Hiru mutil eder, lirain eta talentudunak "mambo" a dantzatzen hasten dute espektakulua. Obran zehar, jantzi aldaketak, striptease-ak eta sketch ugari antzezten dituzte. Bigarren partean Adams familiari buruzko sketch-a da. Antzezlana musikal honek hiru sari jaso ditu gaur arte.

• Beirepeldn dekoratzen ikasteko Idaseak

PNVk beirazko dekorazioari buruzko ikastaroa antolatu du. Klaseak Foruen Plazako Batzokian emango dira urriaren 7tik 23ra bitartean, asteane eta ostegun arratsaldean. Izena lehenbailehen ematea komeni da taldeak mugatuak izango baitira, 15 lagunekoak gehienez, Izena emateko 74 27 44 telefono zenbakira deitu arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean.

• oleo ikastaroa

Egur Arte Tailerrak 30 orduko iraupena duen oleo ikastaroa antolatu du hilaren 13tik 31ra bitartean. Klaseak egunero izango dira arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean Egur-eko egoitzan. Izena emateko Ubitarte Plazako 10kaletik pasatu arratsaldean.

T X A N D A

FARMAZIARI

Eguez	Gauz
4	Bidasolo Bidasolo
5	Bidasolo Bidasolo
6	Yudego Yudego
7	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)
8	Bidasolo Bidasolo
9	Yudego Yudego
10	Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean)

OKINDEGIA

5 igandea Eizagirre

Salerosketak

* SALDU.

- Sero Sette markako esku soinu txiki profesionala saltzen dut. n- 75 61 47 (Unai)
- Baserrian jasotako urrak eta in-txaturak saltzen dira. tr 74 23 30 (Eusebi)
- Merlin 350 Trilaeko motorra saltzen da. tr 74 26 32 (Txornin).
- ♦ Idazmakina elektronikoa salgai. ts 74 44 43
- Vespa motorra saltzen dut. tr 909 82 22 59
- 120 baxu eta basseti dituen Bos-sini esku soinua saltzen da prezio onean. Ia erabili gabe, egoera one-an. tr 75 61 33 (gauetz).
- Egurrezko berogailu baten kal-dera eta butanozko herogailua sal-gai. tr 74 41 28 (Tere, gauetz).
- Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VFR motorra (berria). tr 907 84 40 54 (Unai)

EROSI

- Bibolina erosiko nuke. Neurria: laurden bat, tr 20 04 88 (Jose Luis).

Bestelakoak

- Entrenzaile bat behar da Ikas-tolako 5. mailako neskak futbole-an, saskihaloian eta eskubaloian entrenatzeko. Lehenbailehen. tr 74 33 39
- 62 metro karratuko lokata alo-katzen edo saltzen da Kalainua 7an. w 74 18 54. (945-27 78 08).
- Postetxeko hormaren kontra, kotxesila baten burbuia ahaztu nuen igande eguerdian. Norbaitek aurkitu badi, mesedez dei dezala 74 14 52 telefonora.
- Irailaren 27an Herri Institutoan katu siames hat galdu zen. Buztan motza dauka, kolore marroia eta hegi urdinduna. Begi batek negar egiten dio. Norbaitek aurkitzen ba-du dei dezala 74 02 67 zenhakira.
- Baloi zuri-beitza galdu nuen hi-laren Ilren inguruan. Topatzen duenak dei dezala 74 38 95 zenba-kira.
- Animalien ongizateak kezkatzen hazaitu eta animalien defentsarako talde batean parten hartu nahi ha-duzu, jarri harremanetan ATEA el-

Partikularrak

- Lizentziatuak fisika eta kimika-ko klase partikularrak emango tuzke. Maila guztiak. tr 74 43 98/74 08 09 (Marian).
- Marrazketa tekniko eta diedri-koko klaseak ematen dira. -zr 74 43 98 (Ifiaki)
- Latineko klaseak hartuko nituz-ke. :zr 74 12 64
- Ingeleseko partikularrak ematen ditut. s# 74 15 82 (Eduardo)

Lana

ESKAINITZA

- Neska euskalduna behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Hohe esperientziaduna. tr 74 12 33 (21:00etatik aurren0-4 Taberna hatean eguneroko garbi-ketak egiteko eta orduka barran edo sukaldean aritzeko pertsona bat behar da. 74 37 71
- Neskatala bat zainizeko neska euskalduna behar da. -zr 74 41 54 (Merixe. Gauetz).
- Taherna traspasatzen da Deban. Martxan dago eta bezero onak di-tu. Orain dela gutxi herritua. tr 19 19 54
- *Tabema bat alokatzen da ezin delako atenditu. Bezero onak ditu. tr 74 03 92
- Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da, Goizeko 9etatik arratsal-deko 8etara. te 74 29 30 (arratsal-deko 3etatik 4etara).

*ESKAERM

- Lokalak, tabemak eta antzekoak garbitzeko emakumea eskaintzen da. s# 74 18 68
- Pertsona nagusiak zaintzeko emakumea eskaintzen da, espe-rientziarekin. tr 74 04 86 (Victoria)
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko orduka. u- 74 13 65 (Paquita).
- Neska gaztea eskaintzen da etxe-bizitzak, portalak, bulegoak eta bestelakoak pubitzeko. Esperien-tzia daukat. tr 74 06 09 (Marisabel).
- Haurrak zaindu edo garbiketak egiteko neska gaztea eskaintzen da, esperientziarekin. zr 74 43 16 (Marimar).
- Titulodun ileapaintzailea edozein lan egiteko prest. tr 74 22 91 (Cristina),

Garajeak

- Garaje itxia salgai Urasandin tr 74 43 52
- Garajea alokatzen da San Ro-ken, Aterpe tabernaren azpian. tr 74 33 39.
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean, a 74 05 49 / 74 09 09
- Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa dauka. tr 74 01 33
- Garajea salgai luan Mugerza kalean. tr 74 12 04 (20:00.22100)

Etubizitzak

- Etxea alokatzen da San Bartolo-me kalean. Allzariekin. tr 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin, 12 74 22 25 (Arrate)
- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean, tr 74 02 24.
- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekua, garbigailua eta telebista ditu eta hondartzako Iehen ilaran dago. tr 74 20 31.
- Pisua edo buhardila bat alokatu-ko nuke. Ez zait inporta herritik urrun badago. s# 74 43 10 Cristobal.
- Elgoibarren pisua edo gela hat alokatu nahi dut. tr 74 40 40 (M. Eugenia)
- Pisua salgai Pedro Mugaruzan. 12 74 04 56 (Maria)

Agurrak

- Zorionak Juan Luisi bere urte-betetze egunean, bere etxekoan partez.
- Superzorionak Unai Gazteaini asteazkenean urteak bete zituela-ko. Mundu guztiaren partez. Zo-riónak Super Futholari!!!
- Urriaren 4an ezkonduko diren Isabel eta Juliori hizitza zoriontsu bat izan dezaten, hihotz-bibotzez familia osoa eta bereziki beraien iloba Aitor, Maier eta Ainhoaren partez.
- Zorionak Ruben Perez iraila-ren 28an urteak hete zituelako. Musu haundi bat E.G.ren partez.
- ♦ Zorionak Esther Ildiakezi urria-ren 7an 13 urte heteko dituelako. Aitona, amona, guraso eta anai-arreba Iosu eta Mariaren partez.

Agurrak

- Zorionak Mendaroko hilaren 30ean 14 urte hete zituela-ko. Mendaroko bost lagunene partez musu haundi hat.
- Zorionak amama Rosariori da-torren asteazkenean bere urtebe-tetzea delako. Musu haundi hat Nerea eta Olatzen partez.
- Zorionak Edurne Elorzari gaur, hilak 3, urteak hetetzen di-tuelako. Biloba Aitor, Maier eta Ainhoaren partez. Askoz urte gehiago bete ditzalazula, amama. Musu bero bat.



- Zorionak Asier Arregiri igandean, hilak 5, 11 urte heteko dituelako. Guraso eta arreha Amaiairen partez.

*Zorionak

Asier Arregiri eta musu haundi bat igandean, hilak 5, urteak bete-ko dituelako. Lehengo urteko afa-ria errepikatzen prest?

- Zorionak Erik Luengori gaur, hilak 3, urtebete egiten duelako. Gurasoen partez.



- Zorionak hihotz-hihotzez Iraitz Solaba-rrietari urriaren 4an 10 urte bete-ko dituelako. Fa-milia osoaren partez.



- Zorionak Iralz Solaberrieta 10 urte beteko dituelako hilaren 4an. 5. mailako kuadrilaren partez hamar tirakada belarririk eta musu haundi bat.

- Zorionak Kepari igandean 8 urte heteko di-tuelako. Arnala, Befiat eta fami-liaren partez. Zo-riónak lehengusu Jon, Aitor, Iosu, Elorri eta Nerearen partez.




- Zorionak Zuri-tie Herrerori jo-an den astelehe-nean 11 urte bete zituelako. Asier eta Amaiairen partez.

ZABALETAK

BASERRIA

Etxean hazitako
nekazal produktuak



Egunean bertan
batutako barazkiak,
baserritik Merkatu
Plazara zuzenean



Kalitatezko
produktuak,
naturalak eta
konfidantzazkoak

35.000

BEZIPE!

Merkatu Plaza, 12/13

LE T E

5. URTEURRENA

SAN FRANTZISKO, 43 TEL: 74 41 99



LACOSTE



DIESEL

JEANS AND WORKWEAR

RALPH LAUREN

Urrian

DIESEL

LACOSTE

RALPH LAUREN

eta

BONAVENTURE

marken

Neguko kolezioak

%10eko

beherapenarekin

txarte au e arrita



45.00